

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI) 2012ko UZTAILA

Bidaiarien sarrerak % 2,7 gutxitu dira Euskadin 2012ko uztailan

Gaualdiak % 1,3 jaitsi dira

2012ko uztailan, 256.867 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 7.178 gutxiago, hau da, % 2,7 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak % 1,5 jaitsi dira Araban, % 0,8 Bizkaian eta % 5,6 Gipuzkoan.

Orotara, estatuko bidaiarien sarrera % 11 murriztu da Euskadin. Estatuko bidaiari gutxiago izan ditugu hiru probintzietan, zehazki: % 6,8 gutxiago Araban, % 9,7 gutxiago Bizkaian eta % 15,0 Gipuzkoan. Alabaina, atzeritarrek ugaritu egin dira gurean: % 9,9 gutxira Euskadin. Araban % 8,6, Gipuzkoan % 6,4 eta Bizkaian % 13,6 gehiago izan dira uztailan.

Estatutik etorritako bidaiarien artean, ugaritu egin ziren, besteak beste, Andaluzia eta Murtziatik etorritakoak; gutxitu, ordea, Katalunia, Madril eta Galiziatik etorritakoak nagusiki. Atzeritarretatik, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua eta Europar Batasunetik kanpoko herrialde europarretatik etorritakoak izan dira gehienak. Nabarmen jaitsi dira beste herrialde batzuetakoak, esate baterako, Portugalekoak eta Greziakoak.

2012ko uztailan 509.315 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko uztailaren aldean % 1,3ko beherakada, guztira 6.645 gau gutxiago. Araban, halere, gaualdiak gora egin dute (% 7,3), ez, ordea, Bizkaian eta Gipuzkoan (%1,2 eta % 4,3 hurrenez hurren).

Egonaldien batez besteko iraupena luzatu egin da, % 1,5 luzeago izan da, 2011ko uztailaren aldean Euskal Autonomia Erkidegoan orokorrean: 1,95 egun 2011ko uztailan eta 1,98 pasa den uztailan. Araban, batez beste 1,86 egunez egon dira bertan bisitariak (1,71 egun 2011ko uztailan), Bizkaian 1,91 egunez (1,92 iaz hilabete berdinean), eta Gipuzkoan, 2,13 egunez (2,10 egunez 2011ko uztailan).

Plazen betetze-maila oso berdintsua izan da aurreko: % 60,36koa izan da 2012ko uztailan Euskal Autonomia Erkidegoan orotara. Araban, % 52,53 aurtengo uztailan (2011ko uztailan, % 50,57). Bizkaian ere gora egin du okupazioak: % 58,32 (% 57,95 iazko uztailan). Gipuzkoan, ordea, behera egin du apurtxo bat: % 68,81eko okupazioa izan zen 2011ko uztailan, baina % 66,98a besterik ez da izan aurtengo uztailan.

NEKAZARITZA-TURISMOKO ESTABLEZIMENDUAK

2011ko uztailaren aldean % 12,4 bidaiari gehiago etorri da Euskadira, eta % 9,9 gau gehiago igaro dituzte.

Pasa den uztailan 17.013 bisitari etorri ziren EAEko nekazaritza-turismoko establezimenduetara, horrek esan nahi du, % 12,4 bisitari gehiago izan direla 2011ko uztailan baino. Lurraldez lurralde begiratuta, ikusten da, halere, Araban bisitari gutxiago izan direla halako establezimenduetan, % 9,1 gutxiago. Bizkaian eta Gipuzkoan izandako bilakaeraek egin diote gora batez bestekoari: % 18,6 Bizkaian, eta % 15,7 Gipuzkoan. Estatutik etorritako bidaiari kopurua % 4,3 igo da Euskadin: Araban % 12,4

murritzatu ziren, eta Bizkaian % 13,1 eta Gipuzkoan % 4,8 ugazitu ziren Atzerriarren kopurua igo egin da (% 66) EAEn; portzentajez dezente igo dira hiru herrialdeetan.

EAEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan, 52.401 gualdi egin dituzte bisitariak uztailean, hau da, iaz baino % 9,9 gehiago. Urtetik urtera gora egin dute gualdiek Bizkaian, % 19,9, eta Gipuzkoan, % 9,4; behera, ordea, Araban, % 7,1.

Bidaia-rikiko batez besteko egonaldia gutxitu egin da Euskal Autonomia Erkidego osoan, 2011ko uztailearen aldean: duela urtebete 3,15 egun, eta uztail honetan, berriz, 3,08 egun. Araban % 1,9ko igoera izan da (2011ko uztailean izandako 2,59 egunetik 2,64 egunera 2012ko uztailean). Bizkaian % 1,1eko igoera izan da (batez bestekoa 2,81 izan zen 2011ko uztailean, eta 2,84koa 2012ko uztailean). Gipuzkoan, aldiz, batez besteko egonaldia murriztu egin da, % 5,4 murriztu ere (3,52ko batez bestekoa 2011ko uztailean eta 3,33 uztail honetan).

Plazen betetze-maila % 8,2 handitu da, %37,70tik %40,80ra; Bizkaian (% 19,6) eta Gipuzkoan (% 3,4) izandako gorakadek eraginda. Araban, ordea, % 2 jaitsi da okupazioa.

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazaritza turismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA / ÁLAVA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	07 2012	(%)	07 2011	(%)	Δ %	07 2012	(%)	07 2011	(%)	Δ %	07 2012	(%)	07 2011	(%)	Δ %	07 2012	(%)	07 2011	(%)	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	509.315	100	515.960	100	-1	76.552	100	71.365	100	7	234.482	100	237.300	100	-1	198.281	100	207.295	100	-4
Estatukoak	286.545	56	315.910	61	-9	47.975	63	50.033	70	-4	136.589	58	147.986	62	-8	101.981	51	117.891	57	-13
Atzerrikoak	222.770	44	200.050	39	11	28.577	37	21.332	30	34	97.893	42	89.314	38	10	96.300	49	89.404	43	8
Hiriburua	317.293	62	315.926	61	0	59.420	78	54.498	76	9	146.233	62	147.253	62	-1	111.640	56	114.175	55	-2
Litoral	61.240	12	60.872	12	1	-	-	-	-	-	22.822	10	21.016	9	9	38.418	19	39.856	19	-4
Barnealdea	130.782	26	139.162	27	-6	17.132	22	16.867	24	2	65.427	28	69.031	29	-5	48.223	24	53.264	26	-9
BIDAIA RIEN SARRERAK	256.867	100	264.045	100	-3	41.065	100	41.685	100	-1	122.515	100	123.525	100	-1	93.287	100	98.835	100	-6
Estatukoak	141.823	55	159.391	60	-11	25.558	62	27.412	66	-7	69.114	56	76.497	62	-10	47.151	51	55.482	56	-15
Atzerrikoak	115.044	45	104.654	40	10	15.507	38	14.273	34	9	53.401	44	47.028	38	14	46.136	49	43.353	44	6
Hiriburua	156.294	61	155.650	59	0	29.851	73	30.181	72	-1	74.899	61	73.107	59	2	51.544	55	52.362	53	-2
Litoral	27.081	11	26.538	10	2	-	-	-	-	-	11.124	9	9.969	8	12	15.957	17	16.569	17	-4
Barnealdea	73.492	29	81.857	31	-10	11.214	27	11.504	28	-3	36.492	30	40.449	33	-10	25.786	28	29.904	30	-14
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,98		1,95		2	1,86		1,71		9	1,91		1,92		-1	2,13		2,10		1
BETETZE-MAILA PLAZAKA	60,36		60,57		0	52,53		50,57		4	58,32		57,95		1	66,98		68,81		-3
Hiriburua	66,26		67,41		-2	57,54		57,13		1	63,57		64,64		-2	76,70		78,48		-2
Litoral	65,63		63,69		3	-		-		-	56,07		51,91		8	73,03		72,35		1
Barnealdea	48,14		48,39		-1	40,34		36,89		9	49,84		48,90		2	49,26		52,90		-7
BETETZE-MAILA GELAKA	67,64		67,82		0	59,46		58,25		2	66,69		65,80		1	73,09		75,03		-3
Hiriburua	74,84		75,56		-1	66,85		67,27		-1	73,05		73,67		-1	83,77		84,18		0
Litoral	69,64		69,08		1	-		-		-	61,26		58,29		5	75,34		76,67		-2
Barnealdea	54,26		55,00		-1	41,46		38,48		8	56,44		55,36		2	56,81		61,60		-8
NEKAZARITZA TURISMOA																				
GAUALDIAK	52.401	100	47.664	100	10	6.017	100	6.478	100	-7	15.232	100	12.699	100	20	31.152	100	28.487	100	9
Estatukoak	40.721	78	40.429	85	1	5.130	85	5.586	86	-8	11.230	74	10.183	80	10	24.361	78	24.660	87	-1
Atzerrikoak	11.680	22	7.235	15	61	887	15	892	14	-1	4.002	26	2.516	20	59	6.791	22	3.827	13	77
BIDAIA RIEN SARRERAK	17.013	100	15.130	100	12	2.278	100	2.505	100	-9	5.368	100	4.526	100	19	9.367	100	8.099	100	16
Estatukoak	13.683	80	13.124	87	4	1.962	86	2.240	89	-12	4.301	80	3.804	84	13	7.420	79	7.080	87	5
Atzerrikoak	3.330	20	2.006	13	66	316	14	265	11	19	1.067	20	722	16	48	1.947	21	1.019	13	91
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	3,08		3,15		-2	2,64		2,59		2	2,84		2,81		1	3,33		3,52		-5
BETETZE-MAILA PLAZAKA	40,80		37,70		8	22,34		22,84		-2	37,54		31,39		20	51,14		49,46		3
BETETZE-MAILA GELAKA	42,72		39,89		7	23,61		25,08		-6	39,95		33,16		20	53,44		52,05		3

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzailen inkesta (ETHI)

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

[ETHI-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzailen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzailen Inkestari buruzko datu-bankua](#)